

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Azkuna Agirre

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia*

Aurkibidea



Biografia



Zintak

AMO-191

- **Proiektua:** San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iruretagoiena, Nahia
- **Data:** 2019-03-26
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Lekaroz Mazizior, Gorka

Pasarteak

1. Bi errota zituzten baserrian

- **Erref:** AMO-191/005
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Baserrian baratzea eta behiak zituzten arren, aita lantegian egiten zuen lan. Baserrian bi errota zituzten, bata artoarentzat eta bestea gariarentzat. Jendeak bere zerealak eramaten zituen eta berton ehotzen zituzten, baina ondoren kanpoan saltzeko ehotzen zuten.

2. Baserria zegoen lekuan, futbol-zelaia

- **Erref:** AMO-191/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Baratzea baserri etxean zuten eta Etxanotik zetorren erreka ere. Baserri atzean presa bat zuten eta ur horrek mugitzen zuen errotako harria. Gaur egun ez dago errotarik eta lurrak eta baserria udaletxeak erosi zituen eta futbol-zelai berria eraiki zuten.

3. Azpigarria nola garraiatu

- **Erref:** AMO-191/008
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:07:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Baserrian lan asko egiten zen, askotan egin behar ez zirenak ere. Gaur egun dena mekanizatuta dago. Lan gogorrenetariko bat, basokoa izaten zen. Aita joaten zen beste bi gizonekin. Azpigarria baserrira nola garraiatzen zen kontatzen du.

4. Amorebieta eta Etxanoren arteko mugarria baserri ondoan

- **Erref:** AMO-191/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:07:48. **Bukatu:** 00:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Zornotzan ibili zen eskolan lehenengo eta gero mojetan. Baserri ondoan, Amorebieta eta Etxano banatzen zituen mugarria zegoen.

5. Gaztelaniaz derrigorrez egin behar

- **Erref:** AMO-191/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten. "Cara al Sol" abesten zuten. Amari esan zion lehenengo gaztelaniazko esaldia zein izan zen kontatzen du. Mutilen akademia non zegoen.

6. Maistra guztiak espainiarrak

- **Erref:** AMO-191/011
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maistrak kanpotik etorritakoak ziren (Madrildik, Soriatik...). Jaunartzeko eguna gogoratzen du. Neskek eta mutilek bananduta ikasten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com